



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO AZAROAREN 12AN
GOIZEKO 08:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/10/14KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko urriaren 14ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ZUMITZAGAIN BASERRIARI (SAKABANATUAK 3. SEK. 18A) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2003/0097

JOSUNE URKOLA LARRARTE andreak, Zumitzagain baserriaren (SAKABANATUAK 3.SEK. 18 A) lehen erabilera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2003ko martxoaren 25ean eginiko bilkuran, zera erabaki zuen: >umitza baserriaren lurretan, lurzoru ez-urbanizagarrian, baserriari lotutako etxebizitza bat eraikitzeko udal baimena ematea.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Geroztik berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraberritutako baserriaren lehen erabilera baimena eskatu da.

Udal arkitektoak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2014ko urriaren 21ean, Aldeko txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

**BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreaki
OBRA NAGUSIAK**



Usurbilgo Udala



ZUMITZAGAIN ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERA BAIMENARI TXOSTENA

KOKAPENA: Zumitzagain, Aginaga
ESKAERA DATA; 2013ko azaroaren 14a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2003/0097
OBRA AMAIERAKO PEM: 173,100 €

AURREKARIAK

- 2002ko uztailaren 9an interesatuak Zumitza baserriko lurretan etxebizitza berri bat eraikitzeko oinarritzko proiektua aurkeztu zuen zegokion baimena eskatzeko.
- 2003ko martxoaren 25ean Tokiko Gobernu Batzarrak eskatutako obra baimena ematea erabaki zuen.
- 2003ko ekainaren 16an, obra baimenean eskatu bezala, exekuzio proiektua aurkeztu zuen interesatuak.
- 2005eko urriaren 26an interesdunak baserriaren lehen erabilera baimena eskatu zuen, eta, horrekin batera, honako agiriak aurkeztu: obra bukaeraren egiaztagiria eta elektrairindarraren hornikuntza sareko Loturako Buletina.
- 2005eko urriaren 31n, 4183 irteera zenbakia duen idazkiaren bitartez, beharrezko dokumentazioa osatu gabe zegoela jakinarazi zitzaion interesdunari.
- 2005eko abenduaren 15ean, eskatzaileak etxebizitza berriaren eskriturak aurkeztu zituen, besteak beste.
- 2006ko abuztuaren 9an, 3654 irteera zenbakia duen idazkiaren bitartez, eskriturak zuzentzea eskatu zitzaion interesdunari.
- Behin eskriturak zuzenduta, 2006ko urriaren 24an, 4130 irteera zenbakia daraman idazkiaren bitartez, hauxe jakinarazi zitzaion inetresdunari hitzez hitz:

2006ko irailaren 22an, 3595 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera helarazitako dokumentazioa aztertu dugu.

Ikusi ahal izan dugunez, eskriturak adostutako eran zuzendu dituzue.

Hala ere, 2006ko maiatzaren 31ean zera adostu genuen:

«Las presentes condiciones deberán ser inscritas en el Registro de la Propiedad, a modo de subsanación de su descripción y régimen, en la hoja relativa a la inscripción de constitución de propiedad horizontal, y en las correspondientes a cada una de las partes privativas. Asimismo, deberán hacerse constar en cada una de las escrituras de constitución de derechos reales, transmisión, etc. que se realicen a futuro.»

Beraz, eskriturak Jabego Erregistroan inskribatzea eta ondoren dagokion Erregistroko Ziurtagiria aurkezteko eskatzen dizuet, horixe baita adostu genuena.

ESKARI GAIA



Usurbilgo Udala



Txosten honen helburua da eskatutako obra-lanei lehen erabilera ematea.

TXOSTENA

Josune Urkola Larrarte andreak Zumitzagain etxebizitzaren obra-lanen lehen erabilera baimena eskatu, eta horrekin batera honako dokumentazioa aurkeztu du:

- Obra bukaeraren egiaztageria, bertako zuzendari eskudunek izenpetua eta dagozkion Elkargoek ikus-onetsita.
- Egiaz burututako eraikuntza-lanen planoak.
- Eraikinaren kanpoko aldean argazkiak.
- Obra-lanen Azken likidazioa (PEM: 173.100 €).
- Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia zuzendua.
- Jabetza Erregistroko Ziurtagiria.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairadarraren hornikuntza sareko Loturako Buletina.

ONDORIOAK

Espedientea aztertu eta lanen ikuskapena egin eta gero, jarraitu beharreko hirigintza parametroak aldatzen ez dituzten aldaketa txiki batzuk salbu, egindako obra lizentzia-eskaerarekin aurkeztutako proiektuarekin bat datorrela adierazi behar dut; hortaz, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako, adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2014o urriaren 21ean
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Joxean Erasun Arancón

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: JOSUNE URKOLA LARRARTE andreak eskatu bezala, Zumitzagain baserriari (SAKABANATUAK 3.SEK. 18 A) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

3.- NAIARA FERNANDEZ PEREZ ANDREAK, ZUBIAURRENEA KALEA 2, BEHEAN EZARRI DUEN PODOLOGIA KLINIKA IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.05/2014-0142



Usurbilgo Udala



NAIARA FERNANDEZ PEREZ andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut Bertan, Zubiaurrenea kalea 2, behean ezarri duen podologia klinikaren irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.05/2014-0142
ESKATZAILEA: NAIARA FERNANDEZ PEREZ
JARDUERA MOTA: Podologia klinika
NON KOKATUA: Zubiaurrenea kalea 2, behea – Usurbil

AURREKARIAK

2014ko martxoaren 31ean, 1078 sarrera zenbakiarekin, NAIARA FERNANDEZ PEREZ andereak, *Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa* aurkeztu zuen udalean, Ixiar Oreja Unanue ingeniari teknikoak idatzitako proiektuarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko apirilaren 29an, Zubiaurrenea kalea 2, behean podologia klinika bat ezartzeko obretako udal baimena eman zion NAIARA FERNANDEZ PEREZ andereari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, NAIARA FERNANDEZ PEREZ andereak ezarritako podologia klinikaren irekiera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: JARDUERA EZARTZEA
JARDUERA: PODOLOGIA GABINETEA
ESKATZAILEA: NAIARA FERNANDEZ
KOKALEKUA: ZUBIAURRENEA KALEA 2
LURZORU SAILKAPENA: HIRI LURZORUA
ESP. ZENB.: HZ.05/2014-0142

AURREKARIAK

2014ko apirilaren 29an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, Naiara Fernandez Perez andereari, Zubiaurrenea kalea 2 behean podologia klinika ezartzeko baimena ematea. Erabakian zerrendatzen ziren bete beharrekoak, eta obra amaitutakoan aurkeztu beharrekoak.

Obra amaitutakoan, Ixiar Oreja arkitekto teknikoak sinatutako amaiera ziurtagiria eta eraikuntza eta eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu zituen.

Jarduerari ezarritako baldintzak bete diren egiaztatzeko, lokala ikuskatu zen eta podologia gabinetea ezartzea ontzat eman baino lehen, 2014ko ekainaren 24ean jakinerazpena helarazi zen dokumentazio osagarria eskatuz.



Usurbilgo Udala



TXOSTENA

Zubiaurrenea 2 behean podologia gabinetea irekitzeko udal baimena eskatzen du Naiara Fernandezek, eta 2014ko ekainaren 24ean eskatutako dokumentazio osagarria aurkezten du.

2014ko ekainaren 24ean eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu duenez, aldeko txostena ematen da jarduerari.

2014ko irailaren 12an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: NAIARA FERNANDEZ PEREZ andreak, Zubiaurrenea kalea 2, behean ezarri duen podologia klinika irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:35ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.